

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2021 000003302

Espediente-zenbakia: 2021/KON_NE_G0002

Xedea

Madalen egunerako kainoberak hornitzeko kontratazioa. Hutsik deklaratzeko.

Exp. KON_NE_G0002/2021

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021-06-11ko datuz Kultura sailak KON_NE_G0002/2021 kontratazio espedienteari hasiera emon eutsen.

Bigarrena: Kontratazio honen xedea, Madalen egunean Bermeoko Udaleko lehentasunak, zeremonia eta protokoloa arautzen dituen udal ordenantza kontuan izanda, Izaro uharte gainean Bermeoko Bandera eta Ikurrina kanaberatan jarri behar direnez, kanaberen hornidura kontratatzea da.

Hornidura honekin udalaren bi urteko beharrianak asetzea aurrakusi da. Danetara, lau kainabera hornitzeko eskatuz.

Higarrena: Aukeratutako **prozedura negoziatua publizidade barik** izan da, prozedura irekia hutsik deklaratu ondoren (KON_IOS_0014/2020). Hau da, SPKLaren 169.a)1º artikuluko kasuaren aurrean gagozalako.

Kontratu honen balio estimatua 1.000,00 eurokoa da, BEZa kanpo. Ez dira aurrakusten kontratu luzapenik ezta kontratuaren aldaerak ere.

Kontratu honen lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 1.210,00€ euroko da, BEZa barne. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta. (RC 2021/000498)

Laugarrena: Udal honetako 2021-06-30eko 2392 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, prozedura negoziatu honen pleguak onartu eta deialdia zabaltea onartu zan.

Bosgarrena: 2021-07-06ko datuz kontratazio honen iragarkia argitaratu zan Udal Kontratugilearen profilean eta gonbidapenak bidali jakien zortzi(8) enpresa ezbardinei, espedientean agertu bezala.



Seigarrena: Horretarako emondako hamabost(15) egun naturaleko epean ez da inolako eskaintzarik aurkeztu udal erregistro orokorrean.

Argudioak

Lehenengoa: Kontratazio prozedura hau hutsik deklaratu beharra dago eta jagokoa publikitatea emon kontratugilearen profilean.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, erabagi hartzeko ahalmena alkateari jagoko. Baina 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Zinegotzi Delegatuengan dago delegatuta.

Erabakia:

Hori guztia dala eta, honakoa erabaki dau Ekonomiako Zinegotzi Delegatuak:

LEHENENGOA: KON_NE_G0002/2021 kontratazio prozedura hau hutsik deklaratzea.

HIRUGARRENA: Kontratugileraren profilean argitaratzea.

LAUGARRENA: Ekonomia sailari erabagi hau jakinarazotea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Dekretu hau alkateak eskuordetzea emanda sinatuko da

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

